



**LANKIDETZA -HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN, CAJA LABORAL
POPULAR, COOP. DE CRÉDITOren ETA ELKARGI, EBB-REN
ARTEKOA. EUSKAL ENPRESA-SEKTOREARI FINANTZA-
LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMA 2026ra ZABALTZEKO,
NAZIOARTEKO MUGA-ZERGEN EGOERA BERRIAK ETA EKIALDE
HURBILEKO GATAZKA BELIKOAK ERAGINDAKO INPAKTU
EKONOMIKOARI ERANTZUTEKO**

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, José Enrique Corchón Alvarez jauna, Finantza Politikako eta Aurrekontuetako sailburuordea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta haren ordezkari gisa,

Bestetik, Susana Andrés Gorgojo andrea, ***8058** NANA duena, CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOren izenean eta haren ordezkari gisa, horretarako ahalmen nahikoa baitu,

Eta bestetik: Zenón Vázquez Irizar jauna, NAN zenbakia ***5079** duena, ELKARGI, EBBren izenean eta haren ordezkari gisa; hitzarmen hau sinatzeko ahalmena du, sozietatearen zuzendari nagusia den aldetik. Sozietatearen IFZ V-20066411 da, eta Donostian du egoitza, helbide honetan: Mikeletegi pasealekua 50 (Gipuzkoa).

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE

2025eko ekainaren 26an, hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Elkargi, EBBk eta bederatzi finantza-erakundek, EAEko enpresa-sektoreari finantza-laguntza emateko programa antolatzeke, nazioarteko muga-zergen egoera berriak eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak eragindako inpaktu ekonomikoari erantzuteke.

Haren bidez, aurre egin nahi zitzaien Estatu Batuetako administrazioaren muga-zergen plan berriak eta haren ondorengo aldaketek sortutako ondorioei;

horren ostean, muga-zerga komun berri bat ezarri zen, printzipioz behin betikoa, Europar Batasunetik Ipar Amerikako lurraldera egindako esportazio guztiei aplikatzeko.

Muga-zergen ingurune berri horrek haustura nabarmena eragin du, eta haren ondorioak epe ertainean nabaritu dira. Hala, merkatu hartan interes zuzenak edo zeharkakoak dituzten eragile ekonomiko guztiek horretara egokitu beharko dute.

Egoera berri horren ondorioak denbora-egoera zehaztugabeen hedatuko direnez, eta iazko hitzarmenaren ondorioak uda aurreratu ahala hasiko direnez eragina sortzen, beharrezkotzat jotzen da antzeko ezaugarriak dituen hitzarmen berri bat onartzea 2026 urterako.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erabaki du aurreko urtean hartutako ezohiko neurrien indarraldia luzatzea. Neurri horien helburua deskribatutako egoeratik eratortzen ari diren zuzeneko ondorio kaltegarriak arintzea da, bai eta kaltetutako enpresei esparru berrira pixkanaka egokitzen laguntzea ere, likidezia hornitzeko tresnak ezarriz.

Tresna horietako bat finantza-babesa emateko programa bat da, gehienez 450 milioi euroko zuzkidura izango duena mailegutan. Muga-zergek ukitutako eragileen likidezia-beharrei eta zirkulatzaille-finantzaketari aurre egitea izango du xede.

Mailegu horiek Elkargi, EBBk bermatuko ditu oso-osorik, Laguntza Programaren erakunde laguntzailea den aldetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ere bermatuko ditu. Era berean, aurreko urtean bezala, hitzarmenak sinatuko dira honen babesean formalizatzen diren mailegu-eragiketarako finantzatzeko interesa duten finantza-erakunde guztiekin.

Beharrezkotzat jotzen da hitzarmen bat sinatzea, Eusko Jaurlaritzaren, CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOren eta Elkargi, EBB sozietatearen arteko finantza-harremanak behar bezala bideratzeko, Euskal Enpresa Sektoreari Finantza Laguntzeko Programa 2026. urtera luzatzeari atxikitako maileguak emateari dagokionez, nazioarteko muga-zerga egoera berriak eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak eragindako eragin ekonomikoari erantzuteko, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGO KLAUSULA: HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmenaren xedea maileguak formalizatzeko prozedura eta horien baldintzak zehaztea da, Euskal Enpresen Sektoreari Finantza Laguntza emateko Programa 2026. urtera zabaltzearen esparruan, nazioarteko mugazergen egoera berriak eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak eragindako inpaktu ekonomikoari erantzuteko.

BIGARREN KLAUSULA: FINANTZA-ERAGIKETEN BALDINTZAK ETA EZAUGARRIAK

1.- Enpresa eta pertsona onuradunek eta finantza-eragiketek bete egin beharko dituzte Euskal Enpresa Sektoreari Finantza Laguntza emateko Programa 2026. urtera zabaltzeko ezarritako baldintzak, nazioarteko mugazergen egoera berriak eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak eragindako inpaktu ekonomikoari erantzuteko.

Hitzarmen hau sinatu duen CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOK izapideak egin ditzan, “Abala baimentzeko agiriaren” bidez baliozkotuko da baldintza horiek betetzen diren; eta Elkargi, EBB sozietateak emango du agiri hori, CE1 eranskinetako ereduaren arabera.

CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOK, dagokion autonomiaren esparruko prozeduren arabera eragiketa behar bezala aztertu ondoren, mailegua formalizatu eta ordainduko du Elkargi, EBB sozietatearen “Abala baimentzeko agiria” (CE1 eranskina) jaso ondoren. Dokumentu horrek bilduko ditu maileguaren baldintzak eta ezaugarriak (enpresa edo pertsona onuraduna, zenbatekoa, epea, amortizazioa eta interes-tasa).

Finantza-erakundeak autonomia izango du mailegua emateko edo ukatzeko, bere jardueran erabili ohi dituen analisi- eta ebazpen-irizpideak aplikatuta.

2.- Hitzarmen honen babesean emandako finantza-eragiketen baldintzak hauek izango dira:

Tresna: Mailegu amortizagarria.

Gehieneko interes-tasak: Euriborra sei hilabetera, gehi % 0,75-eko gehieneko diferentziala. Ondorio horietarako, Euribor gisa ulertu behar da Reuterren EURIBOR= pantailaren bidez (oinarria: Act/360) edo, hori desagertuz gero, informazio bera eman dezakeen beste pantaila baten

bidez lortutako bankuen arteko interes-tasa. Tasa hori sei hilabeterako gordailuetarako da, eta eragiketaren dataren edo berrikuspen-dataren aurreko bigarren egun baliodunean kalkulatzen da. Ez da biribiltzerik onartuko.

EURIBOR indizearen balioa zerotik beherakoa bada, interes-aldi bakoitzean aplikatu beharreko tasa zehatza jakiteko egin behar diren kalkuluen ondorioetarako, hitzarmen honetan adierazitakoaren arabera, EURIBOR indizea zero (0,0) dela ulertuko da.

Mailegu-eragiketen epea. Bost urte gehienez, eta aukerako bi gabealdi gehienez.

Likidazio-aldizkakotasuna: Hiru hilean behin egingo da interes- eta amortizazio-kuoten likidazioa. Interes-tipoa sei hilean behin berrikusiko da.

Komisioak: Maileguez ez dute inolako komisio edo gastu gehigarririk izango finantza erakundeari emateko. Mailegu-hartzaileak aurretiaz ezereztu edo amortizatu ahal izango du mailegua, inolako kosturik gabe.

3.- Maileguen zenbatekoa tarte hauetan egongo da:

- 1) 100.000 € eta 1.500.000 € artean, enpresa txiki eta ertainentzat eta enpresa handi hautagarrientzat.
- 2) 30.000 € eta 120.000 € artean, banakako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat.

4.- Enpresa edo pertsona onuradunak eman zaion maileguaren zenbateko osoa izango du erabilgarri. Finantza-erakundeak ezin izango ditu saldoak atxiki edo pignoratu, ezta emandako maileguaren onuradunak eskura dezakeen zenbatekoa murrizteko antzeko figurarik aplikatu ere.

5.- CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOK hitzarmen honetako maileguak gauzatuko ditu poliza-ereduetan, baldin eta horrekin ez badira aldatzen maileguaren onuradunari hitzarmen honetan ezarritako baldintza ekonomiko garrantzitsuak.

6.- CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOK kreditu-eragiketak ematean bere praktikak aplika ditzakeen arren, konpromisoa hartzen du kreditu-eskatzaileei objektibotasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatzeko.

HIRUGARREN KLAUSULA: ERAGIKETEN BERMEA

Emandako mailegu-eragiketa guztiak Elkargi, EBBk abalatuko ditu, baldin eta abalak jasotzeko modukoak badira.

Horretarako, mailegua eman baino lehen, CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOK Elkargi, EBBk emandako “Abala baimentzeko agiria” izatea eskatuko du.

LAUGARREN KLAUSULA: HITZARMENAREN IKUSKAPENA ETA INFORMAZIOARI LOTUTAKO BETEBEHARRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, hitzarmena behar bezala aplikatzen dela zaintzeko, beharrezkotzat jotzen diren egiaztapenak, ikerketak eta ikuskapenak egingo ditu enpresa eta pertsona onuradunen, CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOren eta Elkargi, EBBren aurrean. CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOK hitzarmen honetan bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, iraungi egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak egin ditzakeen legezko beste jarduera administratibo batzuei kalterik egin gabe.

Hitzarmen honetan jasotako eragiketak izapidetzean gorabeheraren bat gertatuz gero, CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOK horien berri eman beharko dio Ogasun eta Finantza Sailari.

Nolanahi ere, Ogasun eta Finantza Sailak hitzarmena modu egokian kudeatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango dio CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOr.

BOSGARREN KLAUSULA: LURRALDE-EREMUA ETA IRAUPENA

Hitzarmen honen lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

Hitzarmena sinatzen den egunetik 2026ko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, eta horren babespean egindako finantza-eragiketetan aplikatuko da.

SEIGARREN KLAUSULA: SALAKETA

Hitzarmena salatzeko nahikoa izango da alderdietako batek klausularen bat ez betetzea.

ZAZPIGARREN KLAUSULA: PUBLIZITATEA

Bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bai CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOK konpromisoa hartu dute hitzarmenaren

behar besteko publizitatea egiteko, maileguen onuradun diren enpresa eta pertsoneri eragiten dieten alderdi guztiei dagokienez.

CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITO, bere aldetik, berariaz adierazi behar du, bere publizitatean eta kontratuen klausuletan, Euskal Enpresa Sektoreari Finantza Laguntza Emateko Programa 2026ra luzatuko dela, nazioarteko muga-zerga egoera berriak eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak eragindako inpaktu ekonomikoari erantzuteko.

ZORTZIGARREN KLAUSULA: DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Hitzarmen honetan aurreikusitako datu-bilketa, -tratamendu eta -lagapen guztietan, aldeek konpromisoa hartuko dute 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa, zorrotz betetzeko.

BEDERATZIGARREN KLAUSULA: IZAERA ETA JURISDIKZIOA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta Ogasun eta Finantza Sailari dagokio edukia interpretatzea eta horri dagozkion auziak ebaztea.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOA

CAJA LABORAL POPULAR, COOP.
DE CRÉDITO

Izpta.: José Enrique Corchón Alvarez

Izpta.: Susana Andrés Gorgojo

Elkargi, Elkarrekiko berme-baltzua,
EBB
ahalordez

Izpta.: Zenón Vázquez Irizar

CE1 ERANSKINA

ABALA BAIMENTZEKO AGIRIA

1) ERAKUNDE ABAL-EMAILEA: ELKARGI, EBB

2) ENPRESA ONURADUNAREN/AUTONOMOAREN/BANAKAKO ENPRESARIAREN DATUAK

Sozietatearen izena / Izena	
Egoitza soziala	
IFZ/IFK	
EJSN	
Jardueraren deskribapena	

3) ABALATUTAKO FINANTZA-ERAGIKETA

Eragiketa mota	
Baimen-zenbakia	
Eragiketaren zenbatekoa	
Baimen-data	
Interes-tasa	
Muga-eguna	
Printzipalaren gabealdia	Bai/Ez
Finantza-erakundea	

4) BESTELAKOAK

Bestelako ohar batzuk	
-----------------------	--

Honen bidez fede ematen dut Elkargi, EBBk abal bat ematea eta formalizatzea baimendu duela, eranskin honetan adierazitako baldintzetan (2. epigrafean deskribatutako enpresa/pertsonari), Euskal Enpresa Sektoreari Finantza Laguntza Emateko Programa 2026. urtera luzatzearen esparruan araututako baldintzekin bat etorritik, nazioarteko muga-zerga egoera berriak eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak eragindako inpaktu ekonomikoari erantzuteko.

ELKARGI, EBB

Izpta.